

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

88. zenbakia

96ko martxoak 1



Elurrez estalita

KONGRESURAKO
HAUTAGAI-
TALDEA
GIPUZKOATIK



- 1 José Lizaso
- 2 Luis Mari Mujika
- 3 Patxi Albisu
- 4 Imanol Murua
- 5 Begoña Lasagabaster
- 6 Mertxe Garate

Bide Tinko eta Baketsua

Koherentzia nazionalista Euskadi defendatzeko.

Eusko Elkartasunak koherentzia nazionalista du, bere herriaren aurrerapenaren alde borrokatzeko bide sendo eta baketsua aukeratuz. Izan ere, koherentzia, demokraziarekin batera, herriaren borondatea defendatzea baita, indarkeriaren esanetara makurtu gabe; koherentzia, gure Herriaren eskubideak defendatzea da, ahalegin tinko berbera eginez hemen eta Madrilen: koherentzia, gure herri-kideen eguneroko arazoentzat irtenbide aurrerazaleak proposatzea baita.

Konpromezu horrekin aurkeztzen dizuegu gure hautagai-zerrenda, gaztetasuna eta berrikuntza, esperientziarekin uztartuz: jende irekia eta kementsua biltzen duen hautagai-zerrenda duzue, aurrean ditugun erronkei ongi erantzun ahal izateko. Gure lan prestakuntza gure Herriaren zerbitzuan jartzeko prest gaude, beti ere talde sendo baten esperientzia eta laguntza izanik, politikan iharduteko modua aldatzeko.

Gipuzkoak Herri honen helburuak tinko eta baketsu defendatuko dituen norbait behar du. Gure herrikideek, inolako baldintzapenik gabeko ordezkariak behar dituzte, Madrilen norberaren interes eta mesederako diren eta gure herriaren aurrerapenari bat ere lagundu ez dioten itunen

baldintzapenik gabe, gure Herriaren eraikuntzan aurrera egiten galarazten digun indarkeriazko hausturaren diskurtso eta estrategia politikoaren baldintzapenik gabe.

Eusko Alkartasunak gure herriaren irudi berri bat eman nahi du, Bakearen eta aurrerapenaren alde lan egiten duen eta Madrilen zer esan asko duen Herri batena. Gure taldeak honako helburuak lortu nahi ditu:

- Bakerako Irtenbideak.
- Gure ekonomia suspertzen eta enplegua sortzen laguntzea
- Norberaren askatasuna eta Herri gisa ditugun eskubideak erabat errespetatzea.
- Autogobernuaren aurrerapauso sendoa ematea.
- Gure aiton-amonei arreta hobea eta baztertutako kolektiboentzako laguntza ematea.
- Ustelkeriaren aurkako neurri eraginkorrak onartzea.
- Euskal Herriak European partaidetza eraginkorragoa eta benetakoagoa izatea.

EA
eusko
alkartasuna

SENATURAKO
HAUTAGAI-
TALDEA
GIPUZKOATIK



- 1 Jon Ander Arrieta
- 2 Iñaki Alkiza
- 3 Koruko Aizarna

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Postetxe-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:
Loinaz Agirre.
Maketazioa:
Mikel Albisu.
Publizitatea:
Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Joseba Te-
lleria, Ane Martin, Loinaz Agi-
rre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Iraida Martin,
Izaskun Salazar, Rufino Iraola,
Xabier Gartzia, Josune Amon-
darain, Antonio Berasategi, Es-
titxu Imaz eta Aitziber Murua.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 5.500 ale. 5.400 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Goierriko AEKn, V. Txiste Lehiaketa

Goierriko Goiztiri AEKren euskaltegiek, 'V. Euskaraz-ko Txiste Idatzien Lehiaketa' antolatu dute. Orain 5 urte, helduak euskaraz idaztera bultzatzeko asmotan sortu zen ekimen honek, urtez urte, partehartze eta arrakasta handiagoa izan du.

(/)Baldintzak, betikoak d, 16 urtetik gora izatea eta txisteak euskara batuan edo euskalkian idatzirik bidaltzea. Txisteak, berriz, nahi adina, martxoaren 29a baino lehen bidali behar dira ondorengo helbidera: "Ordiziako Goiztiri AEK Euskaltegia, 116 posta kutxa, Ordizia", ahaztu gabe, norberaren izena, abizenak, herria eta telefonoa jarrita. Hiru txiste onenen aukeraketa Goiztiri AEK Euskaltegiatako ikasleek egingo dute, eta ondorengo sariak izango dituzte:

-Zeraingo Otatza Sagardote-
gian afaria bi lagunentzat, eta
Lazkaoko Gerriko Liburu-

dendako 10.000 pezetako
erosketa txartela.

-Gaintzako Oteñe Sagardo-
tegia afaria bi lagunentzat,
eta Lazkaoko Gerriko Libu-
rudendako 10.000 pezetako
erosketa txartela.

-Alzagako Olagi Sagardote-
gia afaria bi lagunentzat, eta
Lazkaoko Gerriko Liburu-
dendako 10.000 pezetako
erosketa txartela.

Partehartzaile guztien ar-
tean, beste hainbat sari kul-
tural ere zozketatuko dira.

Bestalde, AEK-koek,
txiste lehiaketa antolatzeare-
kin batera, aurreko urteko
lehiaketara aurkeztutako
txisteak argitaratzen dituzte
libruska batean, aurtien IV.
Txiste lehiaketakoak. Sari
banaketa egunerako kalera-
tuko dira, gero dohainik ba-
natzeko.

Badakizu, martxoaren 29a
baino lehen bidali zure txis-
tea!

Besteek esana

"Aitortu dut bekatu egin
dudala: alegia, ikusi dudala
zorioneko bideo hori. (...) Egia esateko, ez zitzaidan
iruditu bideo hori egileen
aldeko propaganda handia
zenik. Pasamontañetan
zehar uler zitekeenaren de-
mokratikotasuna ez noa
ukatzer, baina mezua har-
tzailearengana iristarazteko
komunikazio-teknika au-
rreratuena erabiltzen dire-
nik ez dut uste (euskarazko
bertsioan, behintzat). Beraz,
Madril aldean buruz argi-
xeagoak balira eta ez hain
liskarzale, jadanik fededun
direnez gain inor gutxi kon-
bertituko zuen bideo ho-
rrek".

Iñaki Mendigurenek
'Egunkaria'n, 96-II-22an

"Nor gogoratu da eguno-
tan Joxe Juan Gonzalez
Txabarri, Txiki Benegas edo
Jaime Ignacio del Burgore-
kin? Alde batera, hobe elur-
teak martxoaren hirua arte
iraungo balu".

**Xabier Mendiguren Eli-
zegik, 'Egunkaria'n**
96-II-22an.

"Profesionaletan Barçan
urte gehiago eman ditut,
baina ni beti Errealekoa
izango naiz. Egunkarian
lehenengo begiratzen dudana
emaitza Errealarena izaten
da".

Txiki Begiristainek,
'DV'n 96-II-18an.



*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Irtenbidea: herriari hitza ematea

Franco generalaren erregimenak Euskal Herriaren eskubideak ukatzen zituelako ez omen zen demokratikoa. Orain berriz, orduan bezala, askatasuna aldarrikatzen dugunok gure Herriak ukatua eta zanpatua jarraitzen duela ikusten dugu. Gure seme-alabak dira lekuko.

Diktadorea hil zenean trantsizio izenez bataiatu zuten erregimen berria demokratikoa izango zela agindu zitzaigun eta Euskal Herriak burujabetzara, independitziara heltzeko aukera izango zuela esan ziguten. Jadanik zaila da pasa diren urteak kontatzea, ezinezkoa izango zitzaigun sufrimenduz beterikoak izan ez balira. Euskal alderdi batzuk Estatuarekin izenpetu zuten hitzarmenetik atera zen Estatutua, hortik etorriko omen zitzaigun irtenbidea. Izerdi, odol, negar eta malko gehiegi ixuri da ordutik, gure Herriaren sufrimenduak berdin dirau.

Gu, beasaindar errepresaliatu eta erahildakoen, senideok, hitzarmen berri eta benetakoa emateko unea iritsi delakoan gaude, ziur gaude euskaldunon gehiengoak horrela nahi dugula eta ziur gaude ere aurkeztu den Alternatiba Demokratikoarekin kolore desberdinetako jende askok bat egin dezakegula, bat egin behar dugula. Horrela nahi dugu, gure senideak ahalik eta azkarren gurekin nahi ditugulako, bizirik behar ditugulako. Euskal Herriak bizirik iraun behar duelako.

Apaltasunez eta itxaropenez egi- ten dugun apustu honetan, Alternatiba Demokratikoan biltzen diren puntuak irakurtzeko eskatu nahi di-

zuegu beasaindarroi, gurekin ezta- baidatzeko, zalantzak argitzen eska- tzeko eta guzti hori egindakoan gal- dera hau alderatuko dugu: Ez al gau- de denok ados?

*Manuel Urzelai, Patxi Leunda,
Bixente Apalategi, Josu Apalategi,
Pedro Jose Ibañez, Manu Urkiola,
Juliana Luzuriaga, Joxe Azurmendi,
Miren Castañares eta Nieves Garcia
(Beasain)*

Gorrotoa

Gorrotoa, hori da une triste hauetan sentitzen dudana. Ni pelotazale huts bat besterik ez naiz baina nire anaia Xabi erremontista da edo zen, hobeki esateko zazpi urte profesional mun- duan eman ondoren Galarretako "ge- renteek" bota egin dute. Beraiek nahi moduan ez duela jolasten esan diote, plantila moztu behar dutela esan dio- te eta beste mila tontakeria. Nire anaia 12 urte besterik ez zituenean hasi zen erremonete munduan, eta or- duan ere pelotari ona izan behar zuela ikusten zitzaion, eta hala izan da eta hala jarraitzen du izaten. 21 urterekin debutatu zuen profesional mailan (a ze poza), baina ordutik sufrimentua besterik ez du jasan bere haragitan.

Sekula ez diote aukera bat eman. Zazpi urte izan dira, zazpi urte la- nean, saiatuz, bere gorputza zainduz, beti garaipenaren bila, nahiz eta ba- tzutan zorterik ez izan. Bitartean bera bezain edo bera baino txarragoak zi- ren pelotariak goruntz egiten ikusten zituen, haiek beren aukera zutelako eta berak ez, eta egunetik egunera bere sufrimentua areagotuz zihoan. Berak ez du abizen "famatudun" ai-

tarik, berak ez du sekula "entxuferik" izan, eta hala ere borrokan jarraitu du, zintzotasunez, gure etxean beti ohi izan dugun eran. Sekula ez du protestarik egin, sekula ez die kalte- rik egin, botako zutenaren beldur ze- lako (hala gertatu den bezala).

Badakit gutun honen bitartez ez dudala nire anaiaren atsekabea leunduko, baina jakin bezate pelota- zaleek eta ez direnek ere, zein mo- tatako "pertsonak" diren Cestau "jauna" eta batez ere Ercilla "jauna". Jakin bezate bidegabeki jokatu du- tela nire anaiarekin eta lehen aipatu ditudan "jaunak" ez direla ez "jaun" eta ez ezer.

Gorka Egialde (Idiazabal)

Erredazio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azaldutako edozein gairi buruz edota interesgarri izan litekeen beste edozertaz, GOIERRITA- RRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko ire- kia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean kolabo- razio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefonoa edota hel- bidea, NAN zenbakia eta kaleratu nahi duen sinadura (ezizenez ere izenpetu liteke) eman beharko dira.



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bai- nuarekin.
-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserri- ko oilaskoa, arkumea...
-Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste.

MANDUBIKO BENTA Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik
Goierriako bidean
Tfona: 88 26 73

Intereseke Telefonoak

Gure korrespontsalen telefonoak

Ataun:

Jon Aizpurua180139

Beasain:

Izaskun Salazar880313

Ezkio-Itsaso:

Pilare Mujika160560

Gabiria:

Gabino Murua160803

Idiazabal:

Aloña Galarraga801375

Itsasondo:

Eduarne Ayuso160615

Lazkao:

Iraida Martin883617

Legorreta:

Josune Amondarain...806026

Olaberria:

Nagore Goiburu160616

Ordizia:

Aitor Calvillo160563

Ormaiztegi:

Aitziber Murua880998

Segura:

Joseba Telleria889174

Zaldibia:

Rufino Iraola884353

Zegama:

Eduarne Albizu801351



Errezeta



Juan Manuel Gar-mendiak emana Kattalin jatetxea Beasain

BAKAILAUA PIL-PILEAN

Osagaiak: Bakailaua (oso lodia ez dedila izan), oliba olioia, baratzuri ale batzuk eta piper gorri lehorra.

Bakailaua gezatu 24 orduz, kamaran eta ura 8 orduero aldatuz.


Baratzuria oliotan gorritu eta kendu. Lurrezko eltze batean bakailaua jarri eta olioia piskanaka gehitzen joan, borobilean mugituz,

ateratzen zaion jelatina ligatzen den bitartean. Lehenengo azala behera begira eta erdi eginean dagoenean gora begira jartzen da, olio guztia bota, jelatina atera eta egin arte.

Jelatina hobe ateratzeko, 2 izotz kozkor gehitu litezke. Egindakoan, bero-bero dagoela, baratzuri eta piperrarekin apaindu eta mahairatu.



Bota bertsoa



Ikerne Urrestarazu Gaia: martxoak 8 Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Piztu dezagun emakumeok barruan daukagun garra eta baztertu gizonezkoen menpekotasun zakarra berdintasuna lortu artean dugu jarraitu beharra nahiz ta oraindik gizonezkoek daukaten hemen indarra (ber).

Askatasuna ostu ziguten pizti gaiztoen modura eta oraindik antzera gaude ezin dugu berreskura emakumeak igaro ditu hainbat min eta tristura baina egunen batean honek aldatuko du itxura (ber).



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



- Ileapaindegia
- Edergintza
- Solariuma

Itxura aldaketa

Nafarroa Etorbidea, 37 ☎ 88 02 97
BEASAIN



Sagardotegia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

Debaldeko iragarkiak

Lana

□25 urteko neska euskalduna prest dago etxeko lanak egin, haurrak zaindu edo antzeko lanetarako. Esperientziaduna. 889521 - 886789 (Elena).

Salerosketak

□Dr. Marteens, Rangeer motakoak, salgai. Beltzak, 44-45 zenbakiak. Bi aldiz erabiliak. Deitu 885388 telefonora.

□Trabesiazko eski ekipo osoa saltzen dut. Tablak 'Hagan tour carbono', fizioak 'Sinvretta 404', botak 'Dinasit tour', modelo berria. Kutxillak eta fokak. Behin erabiliak. 180275.

□Abdominalak egiteko aparatua eta korrika egiteko zinta saltzen dira merke. 880461. Elena.

Etxebizitzak

□Ataunen pisua alokatzen da. Erdiamoblatua, berogailu zentrala eta garajea. Dena kanpoaldera. Deitu: 180248.

Agurrak

□Joxe Antonio, pasilotik pasatzen haizen bakoitzean ez zeukeagu hire berririk jakin beharrik. Bizi lagunak.

Egutegiak

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Martxoak 6, 'Las amargas lágrimas de Petra Von Pont', Usurbe Antzokian, 17:00etan, Asmube eta Udaleko Emakumearen ordezkariak antolatutak.

Martxoak 8, In Fraganti taldearen 'Hamaika trikimailu' lana, Usurbe Antzokian, 22:15ean. Sarrera 600 pezeta. Euskaraz.

✓ Ordizia:

Martxoak 8, Tolosako Antzerki Taldeak 'Mujeres' lana taularatuko du, Barrenan, 19:00etan, Kimetz Elkartek antolatuta.

DANTZAK

✓ Beasain:

Martxoak 10, haurrentzako V. Aurreku lehiaketa, Usurbe Antzokian, 11:00etan.

ZINEA

Goieniz, zinekluba:

Martxoak 7, 'Asunto de mujeres', Usurbe Antzokian, 21:00etan. Sarrera 450 pezeta.

✓ Legorreta:

Martxoak 4, 'Superdetective in Hollywood III',



'Asunto de mujeres' Claude Chabrol (Frantzia, 1988)

Alemaniar okupazioaren garaian frantziar emakume batek bizi izandako gertaera krudelen kronika dugu filme hau, 1943an abortorearen aldeko ekintzak leporatuta gilotinan hil zuten emakumearen benetako istorioan oinarritzen dena. Protagonista, garaiko larrialdi ekonomikoak jota, bere seme-alabak aurreratzearen izkutuko lanetan murgilduz doa aborto edo hilaurreak eraginez nahiz prostitutak babestuz, honen ondorioz jazarria, epaitua eta heriotzera zigortua izango da.

Filme honen bidez, Chabrolek gizakien grinak eta emakumeak nozitu ahal dituen egoera gordinak zehazki aztertzen ditu. Era berean, ordurarte frantziar zinemagintzan gorai pame-na besterik isladatu ez duen gai bat, erresistentziaren historia hain zuzen, ausardiaz dismitifikatuko da.

'Landrú', 'Sergio ederra' edo 'Harakina' filmeen egileak, babesten omen dituen baloreak errespetatzen ez dituen gizartearen faltsukeria salatzen du, erakunde militarren eta justiziaren antolaketaren hidedakkeria.

20:30ean, Herri Zinema.

Martxoak 11, 'Silverado', 20:30ean, Herri Zinema.

✓ Beasain:

Ostirala 1, 'Algo de que hablar', 19:30 - 22:15.

Larunbata 2, 'Malas compañías', 19:30 - 22:15.

Igandea 3, 'El jardín mágico de Stanley', 17:00; 'Algo de que hablar', 16:45 - 19:30 - 22:15.

Astelehena 4, 'Algo de que hablar', 19:30 - 22:15.

Larunbata 9 'Showgirls' 19:30 - 22:15.

Igandea 10, 'El niño invisible' 17:00; 'Showgirls' 19:30 - 22:15.

Astelehena 11, 'Showgirls' 19:30 - 22:15.

✓ Ordizia:

Ostirala 1, 'Seven' 22:15.

Larunbata 2, 'Seven' 19:30 - 22:15.


Igandea 3, 'Time master' 16:45; 'Seven' 19:30 - 22:15.

Astelehena 4, 'Seven' 19:30.

Ostirala 8, 'Smoke' 22:15.

Larunbata 9 'Virtuosity' 19:30 - 22:15.

Igandea 10, 'Fievel va al Oeste' 16:45;



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran
ZERAMIKAK

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

'Smoke' 19:30 - 22:15.

Astelehena 11, 'Smoke' 19:30.

IKUSENTZUNEZKOAK

✓ Idiazabal:

Martxoak 1, San Blas jaietako bideoa, 20:00etan Kultur Etxean.

Martxoak 8, Javier Fernandez "Sierra de Gredos" 20:00etan Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

ERAKUSKETA



JAVIER FERNANDEZ SANCHEZ

✓ Beasain:

Martxoaren 10era bitartean, Javier Fernandez argazki erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Martxoaren 2tik 22ra, Toñi Rodriguezen erakusketa, Aterpe Tabernan.

✓ Legorreta:

Martxoaren 3ra arte, Euskal Herriko zestogintzari buruzko erakusketa

monografikoa, Udaletxean.

✓ Ordizia:

Martxoaren 15era arte, Mertxe Fernandez, M. Eugenia Limousin eta Maria Castellaren pintura erakusketa, Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 3, Agortara.

Martxoak 10, Opakua-Arrigorrista-Onraitara.

Idiazabalgo mendizaleak:

Martxoak 3, Zuhaitzak eta hostoak Idiazabalen ibilaldia eta erakusketa.

Ordiziako mendizaleak:

Martxoak 3, Pagoetara.

Martxoak 10, Txindoki-Antxusi-Uzkoiti.

GOARDIAKO BOTIKAK

Martxoak 1: Cuesta; 2-3: Azpilikueta; 4: Arriola; 5: Urbizu; 6: Atorrasagasti; 7: Azpilikueta; 8: Jauregi; 9-10: Arriola; 11: Larnaga; 12: Cuesta; 13: Arriola; 14: Urbizu.



Elurraren ondoren, prezioak gora

Joan zen asteko elurtea dela eta, prezio gehienek gora egin zuten asteazkeneko azokan, batez ere kanpoko produktuei dagokienean. **Kanpokoetan** esaterako, marrubiak 350-400ean saldu ziren; laranjak 100-175ean; azalora burua 300-350ean; piper morroiak 300 pezetan; piper berdeak 450-500ean; pepinoak 250ean eta kalabazinak 350ean.

Arrainek ere gora egin dute: angulak 21.000 pezetan; legatza 2.190ean; bakailaoa 1.250ean; antxoak 880 pezetan; sardinak 620an; itsas-oilarra 1.260an; mihi-arraina 1.280an; zapoa 1.360an; txitxarroa 950ean handia eta 720an txikia; eta kalamarrak 1.480 pezetan.

Gainerakoan, bertako produktuetan, gauza aipagarri handiegirik ez, elurrak

ez baitu gauza handirako aukerarik utzi. Dena den, Lonbardiako azak aipatu behar dira, berriro ere azaldu baitira. 50-80 pezetan saldu zen. Datorren astean patata berria ekarriko omen dute Arama aldetik.

Aste honetan Aramatik ekarri dituztenak, nartzi-soak izan dira. Udaberriaren etorreraren seinale omen da nartzisoa.

Arkumeetan azkenik, 184 buru pasatu ziren Udalletxe azpiko baskulatik. Gehienak 450 pezetan saldu ziren, baina azkenerako, ezin saldua zela-eta, 400 pezetan saldu ziren.

Ordiziako azoka, beste aste betez gehiago, pilotalekuan egin zen. Enparantza Nagusiko obrek oraindik hor diraute eta jakin badakigu, saltzaileak, ohiko lekura itzultzeko desiatzen daudela.



Senpere Merkatal Gunea
☎ - Faxes: 16 19 90 BEASAIN

Egur laminatuzko leihoak •
P.V.C. • Aluminio • Poliuretano •
Ateak • Pertsianak • Gortinak •
Parket flotantea

Karlos I Etorbidea, 2 - behea
☎ 46 22 66 Faxes: 46 22 24 DONOSTIA

IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



Xabier Gartzia
(beasaindar irakasle
eta idazlea)

**“Bere burua
kultutzat
hartzen duenak
jakin ere egin
behar du
munduko
literaturaren
orriak Bibliako
gertakizunen
aipamenaz
zipriztindurik
daudela”**

Eliza katolikoak aginte-makila eskuetan zuela, beste munduko sinesmen finean hezi gintuzten ni eta nire kidekoak. Mende honen erdialde inguruan jaio ginenoi kristau fedearen atze-aurre guztiak irakatsi zizkiguten eskolan, eta, hargatik, sendo eta zindo sinesten genuen erlijio horretan. Baina denboraren joan-etorriak mudantza ugari ekarri ditu: non dira aldi hartako herri-misioak, bederatziturrenak, gogo-ihardunaldiak edota Arantzazura egindako errromesaldiak? Egun, salbuespenak salbuespen, federik ezak jotako kulturak bizi gaitu gehienbat. Biblia bertan behera utzi eta Kapitala eskuliburutzat hartu, horra hor nire gogaide askotxok egindako bidea. Liburu berriak hartzeari ez diot nik beldur handirik, behinola bide-erakusle gertatu zitzaizkigun liburuak erabat laga eta ahazteari baizik. Izan ere bide-erakusle izan baitzen guretzat Biblia, eta beldur naiz gaurko gazteen artean inor gutxi ez ote dituen jaso liburu horretako irakaspen mamitsuak. Gakoa ez baita sinestun ala sinesgabea izan, gakoa munduko kulturaren ekarriak jaso --ekarri ederrik baldin bada, bibliarena duzue ederretakoa-- ala ekarri horiek aintzakotzat ez hartzea baita. Oraindik orain Clij (Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil) aldizkarian irakurri dudak artikuluko batek --1995eko 75.alea; Biblia y Cultura-- lehendik nituen aipaturiko beldurrak areagotu besterik ez dizkit egin. Argi eta garbi aditzera ematen zaigu hor ikastetxeetako ikasle askok fitsik ere ez dakitela Bibliaz. Itun Zahar zein Itun Berriaz tutik ere ez omen dakite.

Geure burua agnostikotzat jotzen dugunok --arrazonamenduaren bidez ez baigara ulertzera iristen balizko hura benetan izan ote daitekeen-- erlijio katolikoa eta Biblia joan-etorri handiko kontuak direla ikusten dugu garbiro. Bai

Federik gabe fededun

baitakigu Mendebaldeko kulturak, mende luzeetan barrena, iturri agortezin horietatik edan duela. Bai baitakigu erlijio horren ekarpen eta eraginak eta Biblia bazterreraz utziz gero, gure kultura hankamotz geldituko litzatekeela. Bere burua kultutzat hartzen duenak izan behar du, besteak beste, Paradisuak, Moisesek, Sinaik edo Itsaso Gorriak aditzera eman zutenaren berri. Bere burua kultutzat hartzen duenak jakin ere egin behar du munduko literaturaren orriak Bibliako gertakizunen aipamenaz zipriztindurik daudela eta, literatura bere osotasunean ulertuko bada, aipamen horiek ezagutu eta ulertu egin behar dira derrigor. Kulturaren ezitia dastatu eta ulertu egin behar dira derrigor. Kulturaren ezitia dastatu nahi duenak, ikuspegi profano batek begiratuta ere, erlijioagune eta errito erlijiosoak maitatuko ditu. Begirada hori izan ohi nuen nik tenplu-barrenak zapaltzen nituen aldi hartan, eta hantxe hartu ohi nuen gozamenik hizkuntzaren edertasunez. Esate baterako, “Hona bildots ezitia...” entzuten nuen pozkarioz beterik, metafora ederrak belarriak gozaten baitzizkidan, hitzen mezua neureganatzen ez nuen arren. Erritoak berek ere hunkitu egiten ninduten, guztiz nire egiten ez nituen arren. Baina... gaur egun... ba al dakite ikastetxeetako haurrek bildotsa zer den? Ba al dute abaraska edo erlauntzaren berri? Sentituko al dute zirrara berezirik “bildots ezitia” entzutean?

Agnostikook erakutsi nahi dugun erlijioekiko tolerantzia bera --aurreko lerroetan azal-

tzen saiatu naizena-- izan beharko lukete fededunen gidariekin sinesgabeekin. Batek, ordea, zenbaitetan zalantzak izan ohi ditu mitren azpian egosten diren burubideak irakurrita. Estatuko apezpikuek 95-IX-21ean plazaratutako idatziaz ari naiz, eskoletan erlijioaren irakaskuntza arautzen duen legeari egin zioten salaketaz hain zuzen ere. Kexu azaltzen da apezpiku-konferentzia idatzi horretan, lege berriak erlijioaren irakaspenari dakarkiokeen galera dela medio. Baina beren kexu eta saminduraren berri nola emango eta ez al dute eskatzen behingo batean Francok Vaticanoarekin adostutakoari eusten jarraitu beharra dagoela? Ez al da tenorea estatu faxista konfesional hark adostu zuena aztertu, galbahetik pasa eta ontzeko? Apezpikuek diotenez, “Quedan sin resolver los problemas de fondo. Ante todo, porque no se respeta lo pactado en el *acuerdo cultural* España-Santa Sede...” Kultura-akordioa zen hura, alajaina! Babak eltzetik atera dizkigute oraintxe apezpikuek! Franco-erikikoak baino oinarri tinkoagoak ezarri beharko lizkiokete beren idatzia, nahiz eta, gauzak giza ikuspegitik begiratuta heziketa aztertzen duten aldetik, salaketak iritzi probetxugarriak dituen.

Are probetxugarriagoak dituzue J.M. Setienek “Familia eta heziketa” izenburuko bere Gotzain Idazkian, 1995-XI-lekoan, plazaratutakoak. Setienek irakurrita, federik gabeko fededuna izan naitekeela erabaki dut. Irmo sinesten baitut nik fededun eta fedegabeek ez luketeela zerikusirik ez balute bezala ihardun behar. Elkarren osagarri diren zeregin eta eginkizunetan aritu behar lukete, elkar ondo hartuz. Gainera, Ebanjelioetan giza-balore ugari daude baliagarriak izan daitezkeenak sinesgabe nahiz sines-tuntentzat.

Txandaka

Limak eta elurra

Ez da lima gehiagorik egingo Idiazabal-en. Bukatzera doa orain dela 55 urte inguru altxatu zen fabrikaren bizia.

Lege berriak, Ekonomiak, esan du ez duela merezi Idiazabal-en lima gehiago egitea, egiten direla merkeago Kolonbian. Dударik ez egin, hala izango dela.

Eta Ekonomiak dio, orain arte limagintzan aritu diren 70 langileek -edo handiko beste 7ek, nahiz haragoko 7.000ek, ez dio gehiegi inportabeste zerbait egin beharko dutela bizitzeko. Hori bai, Ekonomiaren legea ondo ezagutzen dutenek, jakin dute bere akzioen balioa ondo gordetzen, jakingo dute fabrika abandonatuari etekinen bat ateratzen ere. Gutxienekoa izango da nola; limak ezin badira, egin txaletak eta, bestela, etorriko da zerbait, ez da zentzuzkoa horrelako ondasunak alferrik galtzen edukitzea.

Gaur kristalaren kanpo aldean ikusten ari naizen elurrarena ere horrelakoxea baita. Elurraren legeak denok harrapatzen gaitu, baina batzuek badakite/badakigu nola egin babes egoteko. Gaur gauean aterperik ez duenak madarikatu egingo ditu Elurra eta Ekonomia; eta Elurra eta Ekonomia menderatzeko gauza izan direnak/garenok ere bai, dudarik ez egin.

Antonio Berasategi

Inkesta

Gustoko al duzu elurra?



Mª Jesus Amundarain
39 urte, irakaslea
itsasondoarra

Gustatzen zait, lanera joan behar ez naizean eta errepidera atera beharrik ez daukadanean. Ez dit utzi bizimodu normala egiten. Oporretan egon banintz gehiago disfrutatuko nuen.



Oier Berasategi
22 urte, ikaslea
segurarra

Kristona. Azken batean ume txiki bat naiz eta asko gustatzen zait txirristan ibiltzea, pelotak botatzen ibiltzea... Leihotik begiratu eta txuri-txuri dagoela ikustea asko gustatzen zait.



Pakea Garmendia
26 urte, irakaslea
lazkaotarra

Ikaragarri. Elurra egin zain egoten naiz. Mendi-ra joan eta umeak bezala ibiltzen naiz. Ederki pasatu dut. Jendea ez dakit zergatik kejakten den, urten behin egiten du eta. Botak jantzi eta kalera.



Lazkao Txikiren umorea



Itsasondokoa

Mendizabal eta Lazkao Txiki bertsotatik omen zetozen. Haurdun zegoen emakume batek ingurutik pasatzean agurtu egin zituen.

Lazkao Txikik ezagutzen ez, nonbait, eta galdetu omen zion Mendizabali: - Hi, aizak! Zein huen emakume hori? - Hori? Ezagun bat, zera, Itsasondokoa. Eta Joxemielek irribarrez: - Itsasondokoa den ez zekiat, baina isatsondokoren bat hartu dik behintzat!

(‘Lazkao txiki gizon handiaren haunditasuna’ liburutik hartua)

JOSUNE

ESTETIKA ZENTRUA



* Tratamendu bereziak: aknea, liftinga, estimulazioa eta makilaje iraunkorra..

* Kontsulta medikua: gizentasuna, barizeak, liposukzioa eta zirujia estetikoa..

Zure ezkontza egunean ditziratsu egon zaitez en tratamendu guztiak ditugu.

J.M. Barandiaran Plaza, 3

88 28 88

ORDIZIA



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartza Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen denda, Arrondon.

Segurako Erosle eta Idiazabalgo Alda-nondon.

Joakin Aldanondo

BULKANIZATUAK

Gurpil lanak, alineazioak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastila, tubo eskape, bateriak

Errota Poligonoa (IDIAZABALgo sarreran) 80 02



Ba al dakizu?



Mujika eta Lopez La Santeko (Frantzia) kartzelan daude.

PRESOAK GOSE GREBAN.

Otsailaren 27an hasi eta martxoaren 13ra arte iraungo du presoek gose grebaren 4. txandak. Goierriarrei dagokienez, hauek dira gose greban dauden presoak: Txemi Arteaga beasaindarra (Albacete); Antonio Garcia de Molino ordiziarra (Castellon); Jose Goikoetxea ataundarra (Castellon); Josu Lopez beasaindarra (La Sante); Kepa Mujika ordiziarra (La Sante); Juan Carlos Ioldi ataundarra (Murcia) eta Mertxe Galdos ezkiotarra (Murcia).



9 ALKATE, Jose Mari Aldaia enpresari bahituaren askatasuna eskatzeko, astelehenero Aldintrans lantokiaren aurrean egiten den konzentrazioan izan ziren. Lazkao, Idiazabal, Ordizia, Segura, Zegama, Ataun, Zerrain, Gabiria eta Beasaingo alkateak izan ziren. Era berean, Alkartasuna Lizeoko eta Txindoki Institutuko zenbait ikaslek, larunbatero, Alderdi Ederren Aldintranseko langileek egiten duten konzentrazioan parte hartu zuten.

10-GOIERRITARRA

MADRILGO PARLAMENTURAKO

hauteskundeak igandean izango dira. Goierriarrei dagokien zerrenda haxe duzue: EAtik senadura 5. postuan Joxi Insausti; PSOE-EEtik kongresura 4. Jose Luis Elorza; EAJatik kongresura Jose Luis Arriola 2. eta Markel Olano 9.; eta HBTik kongresura Argider

Mujika 3. eta senadura Arantza Benito, ordezkoko lekuan.

ITSASONDON izandako auto istripuan, Amezketako 38 urteko A.G.A. bizilaguna hilik gertatu zen. Oraindik ezagutzen ez diren arrazoiengatik, autoa errepidetik atera eta amildegitik behera erori zen. Autoan zihoan 41 urteko J.M.A. Itsasondoarra zauriturik Tolosako Asuncion Klinikara eraman zuten.

GOIENIZ, Goierriko Zine Kluba, martxoaren 7an jarriko da berriro ere martxan. Nobedade batekin dator gainera ziklo berria: pelikula bakoitzaren aurretik laburmetraia bat botako da, hain ezagunak ez diren lanak, zuzendariak ezagutzera emateko asmotan. Era berean, filme bakoitza zine aditu edo kritikoei aurkeztuko dute. Ohi bezala, 6 pelikulek osatuko dute zikloa. Zehaz-

turikoak hauxek dituzue:

* **Martxoak 7**, 'Asunto de mujeres' (Claude Chabrol, FRA 88); 'Tonterias' (Jean Pierre Jeunet, Fra) laburmetraia.

* **Martxoak 21**, 'Clerks' (Kevin Smith, EEUU 94); 'Huntza-hiedra' (Antonio Conesa, Esp 92) laburmetraia.

* **Apirilak 11**, 'La reina de la noche' (Arturo Ripstein, MEX 94).


* **Apirilak 25**, 'Posibilidad de escape' (Paul Schraeder, EEUU 90).

Maiatzaren 9 eta 23ko pelikulak zehaztu gabe daude oraindik.


Abonuak 2.000 pezetan daude salgai ondorengo lekuotan: Beasainen Basakana, Blues eta Usurbe Antzokian; Ordizian Leizean eta Herri Antzokian; eta Lazkaon Alboka tabernan.

Iazko balorazioa ere egin du Goienizek. Orokorrean harrera ona izan du, batzaz-beste 115 zinezale (Goierri gutzikoak) elkartu ziren saioko. Horietatik 50 abonatuak edo laguntzaileak. Ekomiarri dagokionez, erakunde eta banketxei esker hortxe dirau Goienizek.

Beti bezala, bi osteguneha behin, Beasaingo Usurbe Antzokian, 21:00etan duzue zita.



OSTIELA! aldizkariaren 2. alea kaleratu berri du Paperzaleak elkarteak. Sexuari buruzko gaiak hartzen dute alearen zatirik handiena. Gainerakoan zera aurki daiteke: Joxe Azurmendik Xabier Mendiguren Elizegiren 'Bekatuaren itzala' eleberriri buruzko erreflexioak idatzi ditu; Ice T talde rapero amerikarraren bi kanta bortitzen itzulpenak badira; "Erotismoa euskal literaturan" deritzon gaia jorratu du Pako Aristik; Gurutz Sarasola "Lotsati", gerraurreko poeta itsasondoarraren bizitza eta obra aztertu ditu Iñaki Seguirolak; Txema Larreraren "Euskaldungoa erroizturik" dela eta...



Jokin Telleriak Madrilen erakutsi duen koadroa.

JOKIN TELLERIA beasaindar pintoreak Madrilen erakutsi ditu bere artelanak, beste 6 euskal pintoreekin batera. Herraiz Galerian izan dira ikusgai Telleriaren lanak.



IRATI eta EKAITZ GOIKOETXEA beasaindar anai-arrebek 1995eko Azkue Literatur sariak jaso berri dituzte. Juan Mari Lekuona euskaltzainak eta Jean Haritxelhar euskaltzainburuak banatu zituzten sariak. Ira-

tik, 10-13 urte bitartekoen sailean, lehen saria eskuratu zeuen. Ekaitzek, 14-17 urte bitartekoetan, bigarrena. Saritutako lanak argitaratu egingo dira.

ANIMESE

MARTINEZ Ordiziako musika taldea 95ean, 'DV' egunkariko 'Devorame' gehigarriko talderik botatuena izan zen. Alberto (ahotsa eta bajua), Mikel eta Richard (gitarrak) eta Geyusek (bateria) osatzen duen taldeak joan zen apirilean grabatu zuen lehen maketa.

EL PENSIL FLORIDO

antzezlanaren estreinatu zuen Tanttaka taldeak joan zen ostiralean Ordizian. Bi goierritar aktorek parte hartzen dute antzezlaneari, Jose Ramon Soroiz legorretarrak eta Mikel Garmendia ordiziarrek hain zuzen ere. Franko garaiako eskolaren minik gabeko memoria bat da; arazo, irakurketa, abesti, hitzaldi eta gainerako parafernalian dagoen ideologiaren oroimen ironikoa. Gaztelerazko bertsioan dago antzezlanaren.

ARANTXA ARZA itsasondoarra saio berri batekin pantailaratu da: ETBko lehen katean, hilean behin, Asier Odriozola lagun duela, 'Lan isilari txalo' saioarekin. Kulturen, giza-harremanetan, kiroletan edo gizarteko beste edozein arlotan isilean lan handia egin duten lagunak txalotzeko sortu da 'Lan isilari txalo' magazina.



BEASAINGO USURBE

ANTZOKIKO erakusketa aretotik 14.000 lagunetik gora pasatu ziren joan zen urtean. Datu zehatzak jarraian dituzue: 2.478 ikastetxeek egindako bisitaldietan; 1.748, 18 urte baino gutxiagokoak; 3.813 pertsona, 18 eta 30 urte bitartekoak; 5.888 pertsona 30 urte baino gehiagokoak. Gizonezko eta emakumezkoen arteko portzentaia antzekoa izan da: 7.781 gizon eta 5.740 emakume. Erakusketa luzeena (22 egunekoa) eta gehien bisitatua izan dena, Nestor Basterretxearena izan da, 1.681 pertsona. Erakusketa bakoitzeko batzbesteko bisita, 738 pertsonakoa izan da eta eguneko media 75 pertsonakoa.

Usurbe Antzokiari dagokionean, 27 ikuskizun izan ziren 95ean eta 4.306 lagun bertaratu ziren, ekintza bakoitzeko 160 laguneko batzbestekoa lortuz.

Esnea

RAM osoa85

Garagardoa

Calsberg l 1/357

Zumoak

Pago 750 cc.....156

2 erosita basoa opari

Pago 200 cc.....75

5 erosita basoa opari



1915etik



resti

HIJOS DE URTEAGA CB

Nafarroa Etorbidea, 15 BEASAIN ☎ 88 09 77

Lejia

Neutrex l 1.....80 pzta

Briketak:


zerrautsaz egindako erregai naturala. Garbia, erabilgarria eta gordetzeko erraza.

14 Kg.....400 pzta

Batzuentzat jolasa besteentzat arazoak

Elurra teilatuan zakua lepoan...". Otsailaren 19 gauean hasi eta hortxe izan dugu ia astebetetz gure artean izara zuria. Batzuen gozamenarako eta beste batzuen kalterako. Gure bizimodua aldrebesten duen arren, paisaia benetan ikusgarria uzten duela ezin da ukatu. Elurrarren kalteak eta gozamenak biltzen saiatu gara.

Otsailaren 19 gauean hasi zuen elurrak. Aurrez iragarrita zegoen baina "eguraldi gizon" hauek "askotan" asmatzen ez dutenez, inork gutxik sinistuko zuen igandeko eguraldi eguzkitua ikusita.



tu egin zitzaien ezustean. Ostegunerarte Altsasun egon ziren. Batek esan digunez, oraindik egun gehiago behar omen zituzten.

Inguruko mendate nagusiak itxita egon ziren: Mandubia, Lizarrusti, Otzaurte eta Etxegarate. Baina herri barruko aldapatxoek ere nahiko lan eman zuten. Beasaingo kasuan, Garmendia Otaolako aldapak, Esteban Lasakoa, Andra Mari kalekoa... itxita egon ziren zenbait momentutan.

Eskerrak palei

Hala ere, Udaletxeetako langileek eta herritarrek beraiek lan handi eta esker-

Horixe usteko zuten kamioilariak. Ohiko bidea egiten hasi eta astearte gauerako, Etxegarartetik ezin pasa. Debekaturik zeukaten kamioiak bidean ibiltzea. Piskanaka N-1aren bide bazterretan kamioiak pilatuz joan ziren. Era berean, Beasaingo Antzizar Kiroldegia 2 autobusetako 41 bidaiariei babesa eman zien.

Etxegarateren beste aldean, Altsasun, egoera berdinean, ezin pasatu, hantxe gelditu ziren Idiazabalgo Herri Eskolako hainbat ume. Etxarri-Larraulen pasatzekoak ziren astelehena eta astearte, baina oporralditxo luza-





ko zutela esanez. Eskiak hartu zituenik ere izan zen. Denerako aukera izan zen.

Elurra bildu, pelota egin eta elkarri boteaz ibiltzeko aukera ere bai. Batzuk gozatu, besteak amorratu.

1985eko elurtearekin konparatu da. Baina adinean aurrera joandakoek, duela 40 urteko otsailean izandakoa ekarri dute gogora. Otsaila osoan, elurra eta izotza izan omen zen. Izotzearen gogortasunaren adibide bezala, pinuak izotzak erre zituela esan digute.

 *Ander Mujika*

garria egin zuten, palak hartu eta espaloiak garbitzen. Kasu batzuetan gatza erabili zen, beste batzuetan, palak eta eskuak bakarrik. Herri nagusietako errepideak ere nahiko garbi egon ziren. Dena den, irristadaren bat egin eta buzur behera erori zenik ere izan zen. Larraldiko erorketarik ez zen gertatu.

Oinetako sendo berri-berriak asko ikus zitezkeen. Oinetako dendak beteta. Dendarientzat kaltearen orde, gozamen. Eta zer esanik ez, kateak saltzen dituzten dendentzat. Zenbait lekutan katerik gabe gelditu ziren.

Ordiziako azokan 8 saltzaile

Hala ere, kateekin edo katerik gabe, asteazkenero Ordiziako azokara etortzen diren 8 saltzaileetatik 8 besterik ez ziren iritsi. Erosleak ere, noski, gutxi. Adituen esanetan, baserritarrak

lasai egoteko moduan daude. Izotzak bai, baina elurrak landareei ez die kalterik egiten eta.

Elurte batzuetan sortu ohi den psikosisa, janaririk gabe gelditzeko beldurra, ez zuten nabaritu dendariak.

Zenbait herri argirik gabe egon ziren, 6 bat orduz.

Plastikoa, trineoa...

Dena den, gozamenerako tartarik ere izan zen. Lehen aipatu ditugun dendariak gain, umeek eta ez hain umeek, orduak eta orduak pasatu zituzten elurretan. Plastikoa, trineoa... txirrist egingo zuen edozerk balio zuen aldapan behera joateko. Baserritarren bat edo beste hasarrarazi zuten, zelaiak, belarra hondatu-



BELLOTA HERRAMIENTAS URTE AMAIERAN IXTEKO ASMOA 68 lanpostu kolokan Idiazabal

Iazko urtearen amaieran, Idiazabalgo Bellota Herramientas lantegiko Zuzendaritzak eskutitz bana bidali zien langileei. 96ko abenduan, lima lantegia itxi egingo zela zioen eskutitzak. Enpresak 68 langile ditu eta komiteko kideek, "soluzio egokiak" eskatzen dituzte.

Bellota Herramientas S.A. enpresa, Bellota Idiazabal, Bellota Legazpia eta Bellota Ollolik osatzen dute. Bellota Idiazabalen 68 langilek lan egiten dute; Bellota Legazpin 500 inguruk eta Ollokin 21ek.

Egoera honen aurrean, hau guztia gertuagotik bizi dutenekin hitz egin dugu. Xanti Urkia (LAB), Anastasio Clavo (ELA) eta Andoni Aizpuruak (ELA) azaldu digute arazo honen nondik norakoak. "Arazoa ez da orain sortu. 8 urte badira produkzio maila jaisten hasi zenetik", dio Andoni Aizpuruak. "Guk hemengo lantegian modelo ezberdinetako limak egiten ditugu. Korporazioak, Kolonbian beste enpresa bat sortzea erabaki zuen, eta honen ondorioz hemengo produkzioak beherantz egin zuen. Honekin batera etorri zen lehen murrizketa ere: zenbait langilek aurrejubilazioa edo indemnitazioen truke beraien lana utzi zuten. Geroago Mexikon beste enpresa bat eraiki zuten".

1993. urtean Patricio Etxeberria enpresa Aforosarekin elkartu zen. Lehen Patricio Etxeberria izena bazuen, orain Bellota Herramientas S.A.



izena hartuko zuen. Batze honen ondoren plan industrial berria egin zen Bellota Herramientas enpresarentzat. Plan honetan Idiazabalgo lima fabrikaren ixtea iragartzen zen. "Hau entzun genuenean ia ez zen arazorik sortu, Idiazabalgo lantegia ixtean denok lana izango genuela garantizatu baizitzailgun; hau da, hau itxiz gero denok Legazpiko fabrikara joango ginen lanera", dio Xanti Urkiak.

Urte hasieran, Komiteari dei bat egin zitzaion enpresaren zuzendaritzatik eta lantegia abenduaren amaieran itxi egingo zela adierazi zitzaion. Berehala langile bakoitzari gutun bat iritsi zitzaion. "Eta hemen hasi ziren gure benetako arazoak. Gutunean noski komitekideei alde zuzenetik azaroan azaldu zitzaiguna jartzen zuen: Idiazabalgo Lima ixtera zihoala. baina noski, hasieran egin zitzaigun promesa hura ez zen beteko. Hemengo fabrikari urte amaieran denok eszedente izango gara baina Legazpira joatea ezinezkoa gertatuko zaigu. Arrazoi oso sinplea da: han ere eszedenteak egongo direlako", esan du Aizpuruak.

Enpresaren proposamenak

Idiazabalgo Bellota Herramientaseko Zuzendaritzak lantegiaren ixtea aipatu ondoren proposamen ezberdinak egi-

ten dizkie langileei hauetako edozein konponbide egokia dela adieraziz. Eskutitzean langile bakoitzari irtenbide hauek ematen zaizkio:

1- "Baja intentzibatua": 5 milioiko kalte ordaina edo indemnitazioa jaso ondoren langileak langabetu izatera pasatuko dira.

2- Kontratua aldatzea: honela egun osotik lanaldira pasatuko dira. Honen ondorioz 3 milioi jasoko ditu langile bakoitzak.

3- 4 urteko epean eszedentzia eskatuko da. Epe hau amaitu ondoren, berriro lanean hasiko dira langileak. Kasu honetan 2 milioiko kalte ordaina jasoko du langileak eta eszedentzian 4 urte baino gehiago egonez gero, urteko 500 mila pezeta emango zaizkio.

4- Lan egiteko egoera onean ez dauden langileek ezgaitasuna eskatuko dute. Enpresak aholkatuko du langilea eta behar izanez gero abokatu bat jarriko du bere beharretara. Elbarritasun absolutuaren kasuan 5 milioi jasoko ditu langileak.

5- Langile autonomo bezala lanean hasiko da. Enpresak langile bakoitza ekonomikoki laguntzeko ardura hartzen du eta gainera enpresak bertan dituen gauzak egiten baditu, enpresak bere produkzioa erabiliko edo erosiko duela ziurtatzen da.

6- Enpresak azpikontratatzan dituen beste lantegietan lan egitea. 5 urtean hauetakoren bat itxiko balitz, Bellota Herramientasen lan egingo du berriro. Kalte ordainak negoziatu egingo dira. Enpresak emango duen diru kantitate handiena 5 milioiko izango da.

Proposamen hauek martxoaren 31ra arte balioko dute soilik eta enpresako Zuzendaritzak langile bakoitzarekin hitz egiteko konpromezua hartzen du.

Eskulan merkea

Enpresak lantegia ixteko ematen duen arrazoia bakarra da, galerak dituela eta ondorioz, ez dela errentagarria. Langile gehienak (komitea ere bai) ez daude honekin ados. *"Guk bada-kigu ez dela horrela. Inoiz ez ditu adierazi zifra edo zenbakien bidez. Eta guk ez dugu sinesten. Gure ustez arrazoia bakarra da: Mexikon eta Kolonbian eskulana askoz merkeagoa dago hemen baino. Irabaziak ere askoz handiagoak izango dira han eta ondorioz erabaki bat hartu du: hemen-gu lantegia itxi eta produkzioa haruntz eramatea. Gainera Mexikoko lantegia handitzeko asmoa duela ere badakigu"*.

Zuzendaritzak egindako proposamenaren ondoren, bilera egin zen langileen artean. *"Gauza bat pentsatu genuen --dio Xantik-- bideragarritasun plan bat eskatzea enpresari, galerak dituela sinesten ez dugulako alde batetik, eta bestetik lantegi hau hobeto antolatu eta gestionatuz gero errentabilitate gehiago ateratzea posible delako. Honela langileoi iritsi zaitzaizkigun gutunak berriro itzultzea erabaki zen, eta Zuzendaritzak proposaturiko 'irtenbideekin' ados ez daudenak Zuzendaritzak deitutako bilerara ez joateko erabakia hartu dugu. Dena den argi utzi nahi dugu proposamen haue-takoren bat onartu nahi duenak, libre dela horrela egiteko"*.

Legazpikoarekin batera

Legazpiko lantegian ere eszedenteak daudela jakin ondoren, bi lantegietako Komiteek (atzetik langilegoaren laguntza dutelarik), indarrak elkartu egin dituzte eta beraien helburuak zeintzuk diren markatu dituzte:

1- Bellota Herramientas empresa osoan kanporaketarik ez egotea. Gainera kontutan eduki beharreko datu bat dago: fakturazio osoaren % 40 merkaturatu egiten dela alegia.

2- Bellota Herramientas enpresan lima



produkzioa mantentzea.

3- Produktu berriak bilatu eta garatzea.

4- Euskal Herritik kanpora dauden enpresen sortzea Korporazioaren intererako izan dela soilik eta bera izan behar dela arduraduna eszedenteen arazoari irtenbide egoki bat emateko.

1995. urtean sartutako ordu estrak 9.000tik gora izan dira Anastasio Clavok esan digunez. *"Guk hauen aurkako salaketa egiten dugu eta langileok bosgarren puntu bezala zera onartu dugu: ordu estren aurka gaudela beti eta horrelako arazo baten aurrean are gehiago"*.

Komitea: "arrazoia bakarra da: Mexikon eta Kolonbian eskulana askoz merkeago dagoela".

Mobilizazioak

"Hauek dira gure helbururik garrantzitsuenak --adierazi du Clavok-- eta hauen inguruan mugituko gara. Eta zer egin ugari dugu, zeren dagoeneko Zuzendaritzak garbi utzi du ez duela onartuko bideragarritasun planik. Orain arte zenbait mobilizazio egin dugu eta aurrerantzean ere egingo ditugu. 15 egunetik 15 egunera edo hi-

labetera behintzat 'eroriko' da zer bait. Egutegia gauzak gertatzen doazen moduan egiten dugu. Egun hauetan iragarrita daukagun mobilizazio baten berri emango dizuegu adibidez: Legazpi, Zumarraga eta Ordiziako azoketan panfleto informati-ba batzuk zabaltzea".

Idiazabalgo Udala

Enpresako zuzendaritzak Idiazabalgo Udalarekin bilera izan zuen. Zuzendaritzak lantegia daudeneko

lurrak berkalifikatzeko eskatu zien. Udalak ezezkoa eman zion eskaera honi. Bestalde, langileak ere bildu ziren Udalarekin. Ondoren proposamena egin zien Udalak: Goiekiren bidez eszedente horiei irtenbidea bilatzea eta Goierriko beste enpresetan kolokatzeko aukerak ikustea. Aizpururen esanetan, *"gure erantzuna garbia izan zen. Guk lehendabizi beste bide batzuk jorratuko ditugu. Hauen ondoren ezer lortzen ez badugu eta enpresa ixten bada, orduan ikusiko dugu. Bitartean aurrera jarraitzeko asmoa dugu"*.

Enpresako Zuzendaritzak emakumeekiko duen jarrera ere salatu dute langileek. Zuzendaritzak dioenez, enpresa horretan lan egiten duen emakume askoren senarrek lanpostu onak dituzte eta hau kontuan izanik, emakume askok indemnizazioen truke lana uztea erabaki beharko lukete. Komiteak jarrera hau salatuz gutuna bidali du Emakundera.

Soluzio egokiak

Amaitzeko zera aipatu zuen Xanti Urkia LABeko ordezkariak. *"Nagusiak dio berak ez duela inoiz despido edo kaleratze hitzik erabili. Eta hau egia da, baina ez du esaten zer egingo duen gurekin. Urte bukaeran gauza honexen beldur gara. Soluzioak eskatu behar dira geratzen garen langileentzat. Soluzio egokiak"*.

 **Estitxu Imaz**

○ **"Bezerearen arreta hobetu nahi du Kutxak"**

Pako Sarriegi duela 49 urte jaio zen Beasainen. La Salle ikastetxean oinarritzko hezkuntza, CAFen Lanbide Eskolan Administratiboa, eta bi urtez Merkataritza-Administratiboa ikastaroak egin zituen. 1963an Administratiboa bezala hasi zen lanean CAFen, eta 1970ean Kutxan.

- Zergatik Beasainen bulego bat gutxiago?

- Bi dira Kutxak aurre egin beharreko erronkak: bezeroei gero eta denbora gehiago eskaintzea, eta kalitatea nagusitzea aktibitate guztietan.

Bezeroei denbora gehiago eskaintzeak, prozesu administratiboetatik ekintza komertzialerara pasatzea suposatzen du. Hau funtsezko ideia da.

Gaur egungo zerbitzu eskema, Leihatila-Bezeroa, guretzat ez da bezeroarentzat zerbitzurik onena. Beste gestio era batera iritsi behar da. Harremana nahi dugu, pertsonalagoa, diskretagoa, konfidantza gehiagokoa, eraginkorragoa. Aurrez-aurreko harrema-

na, gure bulegoetan beti egon dadila aulki bat finantza erako beharren bat planteatzera etorri nahi duen bezeroarentzat.

Hau guztia, gure Sukurtsalen planteamendu eta kontzepzio berriekekin lor daiteke. Horretarako, txiki askoren orde, unitate operatibo handiagoak behar ditugu, giza errekurtso, fisiko eta teknikoak edukitzeko.

Hau da Erauskin kaleko gure sukurtsalaren erreformarekin lotu nahi duguna. 11 lagunekoko plantila dugu, aurreko bi bulegoetako guztiak, baina elkartzean, 6 lagunekoko taldea, bezeroen harrerarako egongo da.

Filosofia berdinarekin uler daiteke Barrendaingo bulegoaren erreforma. Enpresa eta partikularrei zerbitzu hobea eskaini eta emateko.

Bestalde, gure kutxa zerbitzua hobetu egingo da, 5 Kutxatila Automatiko jarri baiditugu, herrian ondo sakabanatuta.

- Kutxari zer moduz joan zaio 95a? Aurtengorako zein aurrikuspen egiten duzue?

- Kutxarentzat 1995a urte baikorra izan da, bai gordailu hazkuntzari dagokionez, bai emaitzei dagokienez. Emaitzetan 1994an baino % 18,5



gehiagoko hazkundera izan da. Beasainen aportazioa garrantzitsua izan dela esan dezakegu, kutxaren batz bestekoaren gainetik.

Guzti horretatik 2.634 milioi pezeta Gipuzkoako Lan Sozialetarako eman dira eta beasaindar eta Gipuzkoa osoari Kutxa kaudimen ekonomiko handiko entitatea dela erakutsi die. Duela urte batzuk egin genuen fusioarekin, gure posizio erlatiboa hobetzea eta gaur egun dagoen kompetentzia handiari hobeto aurre egitea lotu da.

1996ari begira, ez dirudi aldaketa esanguratsuak gertatuko direnik, aurrikuspen ekonomikoak ikusita. Behin-behineko datuek orokorrean mantendu egingo garela esaten dute, gure gordailuen hazkuntza ona izango

delarik. Parte aktiboa, maileguak..., ez dira hain ziurrak. Jendeak baldintza ekonomikoak mantenduko diren konfidantza araberak izango da hori.

- Beasainen finantza etxeen aukera ugaria da. Kutxak zein berezitasun eskaintzen die bezeroei?

- 3 Sukurtsal, 5 Kutxatila Autonomatikoko, beste entitateek baino Produktu eta Zerbitzu katalogo zabala goa, eta batez ere, gure bezeroei pertsonalki kasu egiteko planteamentuak.

Beasain eta Ordizian egin diren Lan Sozialetarako 18.500.000 pezeta eman ziren 1995ean. Ekintza kultural, artistiko, ikastetxe, kirol, 3. adina, gaztetxo eta gazteentzat, formaziorako eta inbestigaziorako, e.a.



*fundazioa
fundación*

Ezkongabeko bikoteen erregistroa onartua

Zaldibiko Udalak, Gasteizko Udalak markaturiko bideari jarraiki, otsailaren 7an eginiko plenoan, ahobatez, Ezkontzaz Besteko Elkarketa Zibilen Udal Erregistroa sortu du. Erregistro honetan inskribatu ahal izango dira matrimoniotik kanpo elkarrekin bizi diren bikote guztiak, baita bikote horiek sexu berekoak baldin badira ere.

Era berean, inskribatu ahal izango dira: lotura horren amaiera, lotura horren bidez sorturiko erlazio pertsonal eta patrimonialak arautuko dituen kontratua eta lotura horren ondorioz sor lezikiekeen gaineratiko gorabera garrantzitsu guztiak. Ezkontzaz kanpo elkartutakoek ezkontzaz uztarturiko bikoteek izan litzaketen kontsiderazio juridiko eta administratibo berberak izango dituzte. Inskripzioak eta ziurtagiriak deialde egingo dira.

Erabaki honekin Zaldibiko Udala, beste asko bezalaxe, bikote guztien berdintasunaren alde jarri da, eta Udaltxean ordezkaritza duten bi indar politikoek, HB eta ZUTek, oso positibo ezezik behar-beharrezko neurritzat jo dute, gaurko gizartean sortzen ari den errealitate berriari erantzun zuzen eta egokia eman ahal izateko.



Autoen zerga ordaindu beharko da laister.

Zergen kobrantzak Udalak

Udal arduradunen hitzetan, laster hasiko dira Udalak egiten dituen kobrantzen erreziboak iristen (autoen zerga, ura eta zabor-bilketarena). Errezibo horietan ipintzen duen epe barruan ordaintzea oso garrantzitsua da, eta halaxe egiten du gehiengoak. Baina badago epeaz kanpo ordaintzen duenik ere, eta batzuek, berriz, ordaindu ere ez dute egiten.

Oharrak dionez, epetik kanpo ordaintzeak lana ugaltzea dakar Udala-

rentzat eta, bestalde, zintzo ordaintzen dutenei burla egitea ere bada. Horregatik, edozein herritan egiten den eran, bere epean ordaintzen ez duenari % 20ko errekaragurekin kobratuko zaio, eta ordaintzen ez duenari lege-bidez ordainaraziko.

Azkenik, ordainketa banketxeren bidez egitea gomendatzen du Udalak. Beraz, erreziboak oraindik helbideperatu gabe dituztenei lehenbailehen egin dezaten eskatzen zaie.

 **Rufino Iraola**

VOLVO
 **TOYOTA**

ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN


ORDIZIA

pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6

☎ 88 59 28 - 16 17 44 ORDIZIA

**EROSKI
KAFETEGIA**

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Emakumearen astea Asmuberen eskutik

Emakume elkarteak, Asmubek, ez du ahaztu martxoaren 8a Emakumearen Eguna dela. Hori dela eta, zenbait ekintza antolatu du asteartetik ostiralera. Ekintza guztiak martxoaren 5ean hasiko dira, Emakundeko teknikaria den Ana Agirrek hitzaldia emango du Udaletxeko Gradu Aretan, 17:00etan. Hitzaldiaren izenburua 'Erakundeak berdintasun-aukeraren aurrean'.

Martxoaren 6an Emakume Ausartak antzerki taldeak 'Las amargas lágrimas de Petra Von Pont' antzezlan eskainiko du Usurbe Antzokian, 17:00etan. Donostiar talde honen antzezlan ikusteko sarrera dohainik izango da.

Martxoaren 7a, berriz ere martxan jarriko den Goieniz zine klubaren esku egongo da. 'Asunto de mujeres' pelikula eskainiko da, beti bezala, Usurbe Antzokian, 21:00etan.

Egun garrantzitsua jakina martxoaren 8a izango da. Beasaingo emakume guztiek egun hau ospatzeko aukera izango dute. Asmube elkarteak afari herrikoia antolatu du egun horretarako Kattalin jatetxean. Edonork har dezake parte. Afaria gaueko 9etan izango da, eguna giro onean amaitzeko aukera ederra.

Martxoaren 4tik 10era bitartean,



Datorren asteko "Emakumearen astea" antolatzeko gogor ari dira lanean Asmubekoak.

Aurora Aseguruetan txinatar portzelaz egindako artelanen erakusketa egongo da ikusgai. Asmube elkarteak Nina artista brasildarraren eskutik emandako ikastaroaren emaitzak ikusiko dira.

Jaien batzordea

Urtero bezala Loinatz Jaietako batzordea osatzeko garaia iritsi da. Ihauteriak pasa berriak dira eta bi hilabete eta erdi bakarrik falta dira Loinatzak ospatzeko. Hori dela eta, jaiak

antolatzen hasteko Jaietako batzordeak otsailaren 27an egin zuen lehen bilera. Aurrerantzean eta Loinatz Jaiak ospatu bitartean egingo diren bileretan edonork parte har dezake, bai partikular, elkarte, zein laguntalde ezberdinek. Helburua jaiak ahalik eta ondoen antolatzea eta bultzatzea da, herritar guztiok ondo pasa dezagun.

Kartel lehiaketan parte hartu nahi duzuen guztiak, adi egon deialdia laster egingo da eta.

Porteriako jaiak Sanjuanetan

Ezkiaga edo Porteria auzoko jaiak dataz aldatuko dituzte aurrean, iaz egin zuen eguraldi txarra dela eta. Orain artean, martxoaren lehen asteburuan ospatu izan dira jaiak.

Argazki ikastaroa

Martxoaren 18an argazkigintza ikastaroa hasiko da Ortzadar Argazki Elkarteak antolaturik. Javier Fernandez izango da irakaslea. Informazio gehiago jasotzeko edo eta izena emateko, Udaletxeko Kultur Sailera edo Ortzadar Argazki Elkartera bertara jo.



Azken urteetako elurte gogorrenarekin gustora ibili ziren ikastolako haurrak. Egin zuten panpina erakutsi nahi izan zirela.

Izaskun Salazar

Euskarazko bideo emanaldiak Barrenan

Hitzaro Euskara Elkartea lanean gogor dabilela erakutsi nahian dabil eta horren lekuko da oraingorako antolatu dituen euskarazko bideo emanaldiak. Ordizian euskararen erabilera sustatu eta bultzatzeko asmoa duen elkarte honek, Barrenan eskeinitako ditu emanaldiak, eta batez ere haur eta gazteei zuzendutako egongo dira. Emanaldiak larunbatetan arratsaldeko 5etan hasiko dira eta salneurria 50 pezetakoa.

Hona hemen Hitzarokoen eskaintza: martxoaren 2an, 3-8 urte bitarteko haurrentzat, "Eguzkiaren erregea". Martxoaren 9an, baita 3-8 urte bitartekoentzat, "Gloucesterreko jostuna" eta "Periko eta Benjamin untxien ipuina". Martxoaren 16an "Hara nor dabilen hizketan" 8-12 urte bitarteko gazteentzat. Martxoaren 23ko emanaldia zehaztu gabe dago oraindik.

Euskara merkatal mundura

Jakingo duzuenek 1994 urte amaieran jarri zen martxan kanpaina hau. Hurrezkero bi fase beteak ditu lan honek eta udaletxetik jakitera eman dutenez arrakasta handiz burutzen ari da, merkatariek begi onez ikusi baitute kanpaina eta aurrera tinko jarraitzekotan dira. Dendaz denda informazioa banatuz ibili eta gero bigarren fase batean merkataria bakoitzari euskararen erabilpena hobetzeko proposamenak luzatu zitzaizkion eta orain fruituak ematen hasi da kanpaina. Errotuluak euskaratuak ikus litezke, bezeroarekiko harremana euskalduna da gehienetan...



Futbitoko finala

Aspaldian alde batera utzi badugu ere, astebukaeraro futbito txapelketa jokatu da. Bere amaierara iristen ere ari da eta igande honetan, martxoaren 3an, eguerdiko 12etan finala jokatuko da Majori kiroldegian. Lehian Ordiziako Txiki Taberna eta Lazkaoko Alboka taberna arituko dira. Bustuntzakoek 1-0 irabazi zien finalerdian Ñañarrikoei eta Albokakoek, aldiz, 3-2ko emaitza lortu zuten Tximistaren aurka. Finalaren aurretik 3-4. postuak jokatuko dira eta finalaren ondoren, berriz, irabazleek sagardotegian bazkari oparo batez gozatzeko aukera izango dute.

Jakintzakoak bikain

Bukatu berria da Gipuzkoako Atletismo txapelketa eta bertan Jakintza ikastolako haurrak oso ondo aritu direla esan liteke. Hain zuzen infantilen mailan Ikastolako neskatek Araban jokatuko den Euskadiko txapelketarako txartela lortu dute, euren mailan lehen postua lortu eta gero. Mutilak ere fin ibili ziren hirugarren postua lortuz. Aipatu baita ere, Gipuzkoako txapel-

keta honetan lortutako marka onak direla eta itxaropentsu daudela ordiziarrok Euskadikoan zerbait aipagarria egiteko.

Martxalariak

Izan ere Euskadiko txapelketa jokatu berri da eta berau Ordizian izan zen. Guztira 56 martxalari bildu ziren eta antolatzaileak gustora ageri dira, etorkizunean Espainiako txapelketa Ordizian bertan egiteko aukera ikusten

baitute. Maila nagusienetan estatuko martxalariak nabarmendu baziren ere, aipatu bertakoek azpi-kategorietan egindako lan ona. Erika Gonzalez jubenetan nagusi izan zen eta infantiletan Eneko Caballero erreztasun osoz nagusitu zen eta badirudi bere anaia Joan Anderren pausuak jarraitzeko asmotan dela.

Akatsak zuzenduz

Eta akatsak diogu, izan ere aurreko alean, kronika hau izenpetzen duen honek gertakariei aurre hartu eta feria bere normaltasunera iritsi zela adierazi zizuen. Goierritarra hamabostekari izateak dituen arriskuetaiko bat da hori eta, beraz, hemendik barkamenak eskatu beharrean gaude gertakariei aurre egin nahi izateagatik eta hanka sartzeagatik. Esan, argigarri gisa, eguraldi txarrak eraginda Enparantza nagusian egitekoa zen peria, berriro ere pitolatekura pasa zutela. Eguraldiak lagun, lanak aurreratzen badira ea laster itzultzen den normaltasuna, merkataria zai daude eta.

 Aitor Calvillo



GESTORIA Biok

(BANDRES)
ASEGUROAK

AHOLKULARITZA LABORALA ETA FISKALA

JUBILAZIOA, BIZITZA, ETXEBIZITZA

ETA KOTXE ASEGURUAK

Goierri, 12
behea

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

Alkatea hil zaigu

Otsailaren 18an hil zitzaigun Joxe Iturrioz Urretabizkaia, Legorretako alkatea, 69 urterekin. Hurrengo egunean pleno berezia egin zen eta bertan aho batez onartu zen hilaren 12a dolu egun izendatzea eta pleno aretoa familiakoei eskaintzea, herritarrek alkateari azken agurra eskaini ziezaioten. Lur ematea 17:45etan egin zen eta hileta elizkizunak, berriz, arratsaldeko 7etan. Jende asko hurbildu zen alkateari azken agurra ematera eta Legorretako herriarengandik hainbat urtean egindako lana eskertzeraz.

Udaletxe berriaren inauguraketa baino hiru egun lehenago, irailaren 27an operatu zuten eta hobera egin zuela zirudienean, heriotzera eramanduena burmuineko infartoa jaso zuen.



Bitarte horretan Joxe Ramon Mugerza jardun da alkate lanetan.

Joxe Iturrioz 1979ko lehen hauteskunde demokratikoetatik zen Udalaren

kide EAJren eskutik. Lehen hiru legegintzaldietan zinegotzi bezala jardun ondoren, laugarrenean alkate izendatu zen. Maiatzeko azken hauteskundeetan ere alkatetza lortu zuen.

Neguko Mus txapelketa

Izaskun eta Joseba Larrauri anai-arrebak dira Igo Neguko Mus txapelketako irabazleak. Otsailaren 10ean jokatu zen finala, Olaso tabernan. Nahiko justuan irabazi zuten Larrauritarrek Bi Kupa bikoteari, 3-2. Hirugarren eta laugarren postueetan, Kike -Fernando eta Moser-Migel bikoteak gelditu ziren.

Josune Amondarain

ORMAIZTEGI

Odol-emaile elkartearen eskertza

Ormaiztegiko odol-emaileen aurtengo lehen odol ateraketa, lehengo otsailaren 19an izan zen herriko mediku kontsultorioan. Odol ateraketa honetan 39 odol emaileek parte hartu zuten, berarekin izan zuten jarrera txalotu beharrean aurkitzen garelarik. Odol-emaileen elkarte honek ohizko laguntzaileei biziki eskertu nahi die oraingoan ere izandako laguntza. Hain zuzen ere, Pedro Zulaika sendagileari kontsultako zerbitzuak uzteagatik, baita Elozegi ardoteziari eta herriko hiru harakinei eskerrik beroena bidaltzen die lerro hauetatik.



Gure herrian ere, berri nagusia izan zen joan zen asteko elurtea.

Ur, zabor eta estolderien zergak

Zergadun guztiei jakinarazten zaie, 1995eko laugarren hiruhilabeteko ura, zaborra eta estolderiaren ordainagiriak 1996eko martxoaren 26ra bitartean borondatezko epean ordain daitezkeela. Epe hori igaro ordaindu gabe dauden ordainagiriak % 20aren gainkarguarekin kobratuko dira.

20-GOIERRITARRA

56. urteko kintoen festa

56. urteko kintoek 21 urte daramatzate beraien festa eguna antolatzen. Gipuzkoa osoko urte horretako kintoak elkartzen dira festa honetan. Iaz 176 kinto lagun elkartu ziren. Aurten martxoaren 31n elkartuko dira Loiolan.

Egun horretarako prestatu duten egitarauari 13:00etan ospatuko den meza santuak emango dio hasiera, be-

rau Loiolako Santutegian izango da. Ondoren txakolina dastatzeko aukera izango dute 'Loiolatxo' elkartearen. 14:30ean Kiruri jatetxean bazkaria izango dute.

Izena Kiruri jatetxeko ondorengo telefono honetan eman dezakezue: 815608.

Aitziber Murua

Sukaldaritza berdea ikastaro arrakastatsua

Otsaileko 4 ostiraletan aurrera eraman zen Goiherriko Euskal Eskolak antolatutako *sukaldaritza berdea* ikastaroa. Bertan 20 pertsonen parte hartu zuten. Izena emateko asmoa beste hainbestek ere azaldu bazuten ere, leku eza zela eta, lehengo 20entzat bakarrik izan zen lekua. Gerriko txokoan ostiralero era guztietako jendea biltzen zen. Aipagarria da, Lazkaoz kanpoko jendeak ere parte hartu zuela, gazteak nagusi izan zirela eta gehienak emakumezkoak baziren ere, mutilik ez zela falta izan.

Ostiralero irakasle ezberdinak izan zituzten ikastaroan. Hauek ez ziren profesionalak eta 4tik 3 herrikoak izan ziren. Antolatzaileen asmoa ez baitzen goi mailako ikastaro bat ematea, baizik eta plater errazak prestatuaz ideia batzuk hartzea. Gero izango dute parte hartzaileek bakoitzak bere esperimenduak egiteko denbora.

Ikastaroan, entsalada eta zopa ezberdinak, kalabazin bete edo arbaldatauak, porru hojaldreak eta abar luze bat prestatzen ikasteaz gain, ondoren giro ederrean jan zituzten.

Hitzaldi-tertua

Sukaldaritza begetariano ikastaroari segida eman nahian edo, hitzaldi bat antolatu du Goiherriko Euskal Eskolak. Bertan jorratuko den gaia, "*sano eta osasuntsu bizitzeko elikadura*" izango da. Hitzaldia martxoaren leian,



arratsaldeko 7:00etan, Udaletxeko Areto Nagusian dago iragarria. Hizlaria Naroa Arrieta dietetika eta nutrizioan diplomatua izango da.

Martxoaren 8ko afaria

Emakumeen eguna ospatzeko, berdintasuna helburu hartuta, afari bat antolatu da gizon eta emakumeentzat. Goiherriko Euskal Eskola eta Gerriko Txokoa dira antolatzaileak. Martxoaren 8an izango da, gaueko 9etan Gerriko Txokoan. Prezioa 1.300 pezeta-takoa da eta martxoaren 6a baino lehen eman behar da izena Gerriko liburudenda edo tabernan. Bertan ez da janari, edari, musika eta kanturik faltako.

1960an jaioetakoek afaria

1960. urtean Lazkaoan jaioetakoentzat afari bat antolatu da. Martxoaren 16an, arratsaldeko 7:30ean, Giroa tabernan poteoarekin hasiko da ospakizuna. Afaria gaueko 9:00etan Olaberriako Arrietan izango da. 4.000 pzta. balioko du eta joan behar duenak Euskadiko Kutxan 1.000 pzta. aurreratu beharko ditu martxoaren 9a baino lehen. Kontu zenbakia 088.0.014137 da. Informazio gehiago Estanko tabernan (Txurdorekin hitz egin).

 Mikel Albisu eta Iraida Martin

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnr. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)



Tfona: 885500 ORDIZIA



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

URBITARTE sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

Arkaitz Sodupe: maila, talde eta denboraldi berria



12 urte zituela, Xabier Intxausti, Laiotz Herri Eskolako kirol arduradunak, Beasainen txirrindulari taldea sortzera zihoala komentatu eta animatu zen Arkaitz Sodupe, beste herritar batzuekin batera, txirrindularitza munduan sartzera. Harrez gero, Gurrpil taldean, alebiretan 2 urte pasatu zituen, 4 urte Iberdrola taldean, 2 infantiletan eta beste 2 kadeteetan, eta Opel-Iruroen jubenetako azken bi urteak. Orain, 19 urterekin, afizionatuen 2. mailara, Iberdrola taldearekin pasatu da.

1977ko otsailaren 14an jaioa, 1,75 metro, 66 kilo eta 56 taupada ditu minutuko. Aurten, Lanbide Heziketako ikasketak bukatu ondoren, 2 urte oso osorik, txirrindularitzari eskainiko dizkio. Eskalatzailea, erlojupekoan eta lauan ondo moldatzen da; berak dioen bezala, sprinta du arlorik ahulentxoena.

Bere lehen garaipenak infantiletan lortu zituen, bi karrera irabaziz, bata Andoainen eta bestea belodromoan, 3nakako proba batean. Baina denboraldirik onenak jubenetan mailan egin ditu. Iazko denboraldian 3 karrera irabazi zituen, Elgoibarren, Seguran eta Olaberrian, Gipuzkoako itzulian ere 2. sailkatu zelarik.

Denboraldia, otsailaren 10ean hasi zuten, nahiz eta aurrez, 3 asteburutan kontzentratu egon diren. Dagoeneko, 3 karreratan parte hartu du, hiruratan Iparraldean. Lehena amaitu ez bazuen ere, beste bietan, tropeleko lehen postuetan sartu da. Afizionatu mailan, antolatzen

keta guztia askoz ere serioagoa da, al-daketa handia da: talde lana, erritmoa, distantziak... *"Hemen ikus daiteke benetan, txirrindularitzan ezer izan zaitezkeen ala ez. Aurtengo denboraldirako helburua, mailara eta taldera egiten joatea da. Plangintzari dago-kionez, hilaren hasieran zein etapa korrituko ditugun jakinarazten digute, norberak ere proposamenak egin ditzakeelarik. Itzuli handiren bat korritzea espero dut".*

Iberdrolaren antolaketaz eta funtzionamenduaz oso gustora dago Arkaitz, bi segurar baititu gainera zuzendaritzan, Xabier Aldanondo kirol zuzendari eta Peio Mari Garaialde taldeburu.



Hiru bikote irabazleak beren trofeoekin. Inazio, Xabin, Bittori, Joakina, Arturo eta Joxe.

Atsedeneko txapeldunak

Atsedeneko Jubilatuen Elkartek antolatuta, otsailaren 23an jokatu zen XI. mus, tute eta puntuko finalean, ondorengoak izan ziren irabazleak:

Musean: Inazio Urbizu eta Xabin



Oxina Portalaren itxura berria. Inguruari azken ikutuak emanda, garai bateko astolekuari baranda jarriko zaio.

Aldanondo. Txapeldunorde, Extanix Agirre eta Xatur Arizkorreta.

Tutean: Joxe Ormazabal eta Arturo Gonzalez. Txapeldunorde, Manuel Huerta eta Julian Telleria.

Puntuan: Bittori Telleria eta Joakina Alustiza. Txapeldunorde, Milagros Alustiza eta Luixa Aldanondo.

Hiru bikote irabazleek, eskualde mailako txapelketan parte hartuko dute.

Garbiñe Etxezarreta

Otsailaren 25ean Legazpin izandako Gipuzkoako Eskolarteko Kross Txapelketan, brontzezko domina lortu zuen Garbiñe. Lehenengo 1.000 metroan lasterketa buru izan zen, eta irabazleak baino 3" gutxiago, 5' 32", behar izan zituen 1.750 metro egiteko. Neska alebiretako proba honetan 80 lagunek parte hartu zuten.

Pelota

Ostiralean, martxoaren 1ean, gaueko 10:00etan, Klub arteko VI. Euskal Ligan, ondorengo partidua jokatu dira Baratze Pelotalekuan:

Juniorrak: Iñigo Otegik eta Jon Ander Honbrek

Añorgakoen kontra jokatu dute ligillako azken partidua. Talde bakoitzetik bi lehenak sailkatzen direnez, posibilitate handia dute aurrera egiteko.

Seniorrak: Iñaki Artolak eta Ibon Etxeberriak, Elgetako Oskarbi taldekoen kontra jokatu dute final laurdenetako itzulerako partidua.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Elurra zela eta, erregionalak besterik ez zuten jokatu. Igoera faseko partiduan, Donostian, 1-2 irabazi zioten Grosekori.

Asteburuan etxean:

Kadeteak: jaien, 12:00etan, Aitzkorri-Bergara.

 Joseba Telleria

Karreristak prest denboraldi berrirako

Igandean, martxoak 3 hasiko dute 'tenporada' Agauntza Kirol Elkarteko bizikletazaleek. 1981ean sortu zen Elkartea eta gaur-gaurkoz 22 lagun dira. Beteranoak eta gazte-gazteak nahasian, esperientzia eta sasoia. 12 urte egin berri dituen Gorka Albisu dute partaiderik gazteena. Beti-betikoak, berriz, Baliño, Juan Arrondo, etabar.

Aurten 26 'etapa' edo iteera prestatu dituzte. Guztira 2.415 kilometro. Etaparik motzenak lehenbizikoa, Ataun-Amezketeta eta azkenekoa, Ataun-Albiztur izango dira. 52na kilometro. Luzeenak, berriz, uztailen izango dituzte. Ataun-Oñati-Arrasate-Arlaban-Ozaeta lehenbizi eta Ataun-Madoz-Lekunberri-San Migel ondoren. Biak 140 kilometrokoak. San Martin proba garagarriaren 9an izango da eta San Gregoriokoa, berriz, abuztuaren 31n.

Aurten traje berria izango dute. Igandean estreinatuko dute eulien herritik buelta egiten.

Eskolan hots onak

14 urterarte herrian geldituko ote dira? Lehen ezetz eta orain badirudi baietz. Ate guztiak giltza handiz itxita zeudela zirudien eta orain bestelako hotsak zabaldu dira. Kronika hau idazterakoan, ez zegoen oraindik konfirmazio ofizialik baina momentuz behintzat herrian geldituko dira 14 urterarte. Herri txikiak Eskolak eta Udalak eska eta eska aritu dira eta zerbaitetarako balio izan du. Ikusi egin behar ze egoera sortzen den orain.

Aurre-matrikulazioa

Aurre-matrikulazioa egin da. 19 ume berrik eman dute izena. 2 urtekoak 9 eta 3 urtekoak 10.



Igotzaileak, sprinterrak, denak talde-lanean...



19 ume izango dira lehenbizikoz Eskola bidean.

7. eta 8. mailakoen izen-ematerik ez da egin, behera joan behar zutelakoan.

75 langabetu

75 herritar daude lanik gabe INEM-aren bulegoetan izena emanda. Abenduaren 31a bitarteko datuak dira. 75 horietatik, 33 emakumezkoak eta 42 gizonezkoak. 25 urtez azpitik 16 daude langabezian eta 50 urtetik gora 17. Aurrez sekula lanik egin ez dutenak 12 dira.

Datu hauen arabera, langabeziak gora egin du herrian. 94ko abenduan 60 lagun zeuden lan faltan, iazko martxoan 49, garagarriean 59, agorreen 57 eta urte amaieran 75. Profesional eta teknikariak, meatzal langileak eta peoiak dira okerren dauden talde profesionalak.

Garbiketa lanak

Martxoaren 1etik aurrera, 'Katea zerbitzuak' enpresaren esku gelditu da herriko egoitza publikoen garbiketa. Orainarte lan hori egin duen Inmakulada Lasa jubilatuta egin da eta bere ordez, enpresa bati kontratua egitea erabaki du Udalak. Kontratu urtebeterako da baina 4 urtera luzatzeko aukerarekin. 'Kateak' enpresak bi langile enpleatuko ditu eta biak herritarrak izango dira. Udaletxea, Eskola eta San Martingo Medikuetxea egunero garbituko dituzte eta San Gregorioko eta Aieko komunak hamabostean behin. 9 ordu emango dituzte egunero: 5 Eskolan, 3 Udaletxean eta 1 Medikuetxean.

Inmakuladaren jubilazioa dela eta, 8 langileko plantila du orain herriak.

Elur-ekaitza

Orain 40 urteko otsaila izan dute go-goan herritar askok. Orduan pinuak ere erabat erreta utzi zituen izotzak, hila-bete osoa elurpean. Baina oraingoa ere ez da makala izan. Metro-erditik gora leku goienetan, kalean 15 zentimetro pasatxo leku batzuetan eta arazoak batetik bestera ibiltzeko: Denetik probatu dugu aurtengo neguan: epela, hegoia, zuhaitzak lorean, haize beldurgarriak, elurra.. Laster dugu kukua.

Heriotza

Zelestino Albisu Zurutuza. Telletxeberrikoa. 59 urte zituela hil zen otsailaren 19an. Atsekabeen lagun familia-koei.

 Jon Aizpurua

Antzizar Tennis Taldea, tenisa bultzatu nahian

Udako kanpainaren barruan hasitakoari jarraipena eman nahirik sortu da Beasaingo Antzizar Kiroldegiko tenis taldea. "Udako kanpainak harrera ona izan zuela ikusirik, jarraipena ematea erabaki zen, ez zedila udako gauza bat bakarrik izan. Jarraipena emateko egitura sendoagoa sortzea erabaki eta Antzizar Tennis Taldea sortu da. Taldeak inplikazio gehiago eskatzen du", esan digu Etor Mendia taldearen entrenatzaileak. Gipuzkoa mailako lehiaketetan parte hartzen dute, "seriotasuna eman eta eurak motibatzeke. Ezaguna ez den arren, egutegia nahiko zabala da, Donostia eta Irun aldean batez ere".

Ez da kirol elitista

Tenisa elitearekin lotu izan da beti. "Tenis klub batean sartzeak hileroko kuota ordaintzea eskatzen du, pribatu mailatik joan delako. Baina orain Udal erakundeek hartu dute antolakuntzaren ardura, beste edozein kirol bezala da. Instalazioak bertan daude, (Beasainen, Ordizian, Lazkaon, Ataunen, Idiazabalen...) eta kontzientzia hori aldatzen ari da. Kirol guztiek daukaten arazoa du tenisa, denak futbol eta saskibaloia aldera orientatzen baitira, eta beste kirolak minoritarioak dira. Tenisak gure artean tradizio gutxi duenez, oraindik minoritarioagoa da. Baina jendea gustatzen zaio, gustura ibiltzen da".

Tenis instalakuntzak badira Beasainen. Neguan hala ere arazoak iz-



Tenisean jokatu nahi duen edonorentzat dago irekita taldea.

ten dituzte eguraldia dela eta ez dela. "Pistak estaliak ez direnez, neguan entrenatzeko arazoak izaten dira. Orduan, eguraldia txarra izaten denean, teknikako ariketak edo preskakuntza fisikoa egiten dira Kiroldegiko barruan".

Oinarrietatik hasia helburu

Momentuz 3 lagunek osatzen dute taldea: Etor Mendiak (entrenatzaileak), Juan Diego Pedrazok eta Mikel Jauregik. "18-20 urtekoak dira, baina helburua oinarrietatik hasia da, umetatik formatzen joatea. 20 urterekin tenisean hasten denak teknikoki hutsune asko izaten ditu, zaila da teknika lantzea". Gauzak honela, Beasaingo ikastetxeekin hasi dira lanean jo eta ke. "Ikastetxeetatik Kiroldegira tenisa ikastera joaten dira,

Tenis Taldekoak gara irakasleak", adierazi du Etorrek. Beasaingar gaztetxoak eskualdeko beste gaztetxoekin lehiatzen dira hainbat txapelketetan.

Tenisa promozionatzeko asmoa dauka Antzizar Tennis Taldeak, batez ere haurren artean. Era berean, "taldea ezagutzera eman nahi dugu. Jendea harrapatu, taldea osatu eta lan egiteko asmoa daukagu", azpimarratu du entrenatzaileak. Tenisean jokatu nahi duen edonorentzat dago irekita taldea. Aste hiru egunetan izaten dira entrenamenduak: astelehen, ostegun eta ostiraletan iluntzeko 8etatik aurrera. Interesa duena, egun eta ordu horietan azal dadila Beasaingo Antzizar Kiroldegira.

M. A.

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfona: 880243 - 880133
BEASAIN

LOINATZ Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

Bi lerrotan



IKER SUKIA, Jon Etxeberria eta Amaia Andres izan dira Espainiako nagusien mailako txapelketan Goierriren ordezkariak. Iker Sukia ataundarra pisu jaurtiketan, Jon Etxeberria ordiziarra 800 metrotan, eta Amaia Andres beasaindarra 400 metrotan. Iker Sukia juniorrak lehenengo aldiz parte hartu zuen nagusien mailan eta berak lortu zuen emaitzarik onena. Ataundarrak 5. egin zuen, bola, 16,44 metrora boteaz.

LIDIA FRIAS atleta ordiziarra Espainiako txapelketetan, junior mailako 800 metroko aire zabaleko proban parte hartzeko denbora


lortu berri du Sevillan. Lidia Frisaren denbora 2' 18" 31koa izan zen, bere aurreko marka (2' 20" 5) hobetuz.

ESKOLARTEKO

ATLETISMO lehiaketetan emaitza onak lortu dituzte goierritar gazte-txoek. Infantil mailan, Ordiziako Jakintza Ikastolako neskak eta Lazkaoko San Benito Ikastolako mutilak, Euskadiko txapelketan izango dira, Gipuzkoakoan irabazle izan ondoren. Aipagarria da, Jakintza Ikastolako mutilek, maila berean, 3. postua lortu zutela, irabazleengandik 10 puntura.

Marka pertsonalak hobetu zituzten eta ondorioz, Euskadiko txapelketetan Gipuzkoako selekziozko partaide izateko aukera asko dituzte.

Ordiziako Kirol Elkarteko atletismo sailarekin lan egiten dute Goierriko ikastetxeek. Emaitzak hor daude, eta Goierriko atletismoa nagusi da inguruko txapelketetan. Talde gehienak ere goierritarrak dira, 15 guztira alebin eta infantiletan: Lazkaoko San Benito, Beasaingo La Salle, Ataun Joxemiel Barandiaran eta Ordiziako Milagrosa eta Jakintza.



MARTIN ALUSTIZA segurarrak, Ladis Galarzarekin batera, Tolosako Ihauterietako torneoa irabazi zuen, 22-21. Arerioak, Salaberria-Beloki nafarrak izan zituen.

AITOR GARMENDIA txirrindulariak estreinatu du aurtengo denboraldia eta Once taldeko elastikoa. Aurreko muturrean azaltzen ere hasi da. Honela, Luis Puig saria 9. postuan amaitu zuen. Valentzia eta Benidorm tartean 201 kilometro egin ondoren, Van Petegen garaileagandik 6 segundutara helmugaratu zen itsasondarra.

Denborapasa

Aurreko zenbakiko gurutzegramaren soluzioa →

7 LETRA

ALGERA
AMAZULO
ATABALA
BOKALEA
BOSKOTE
IKARATI
IKASLEA
IRAGAZI
OKARANA
OKASIOA

5 LETRA



ANDER
AUZOA
BILOA
EUTSI
IRRIA
IRULE
LEKUA
LERAK
OPILA
SOROA
UKANA
ZABOR

6 LETRA

ALAIK
BIDAIA
MAKALA
MIRARI

3 LETRA

ART
BIL
IZU
KOR




Estebe Ormazabal beasaindarra txokolate artean

Duela 7 bat urte atera zen gaur egun 29 urte dituen Estebe Euskal Herritik. Iruñean biologia ikasi ondoren, Valentzian bi urte egin zituen elikadurako master bat egiten. "Hura bukatzean, Ikerketa munduan sartu nahi nuen baina ez zegoen aukerarik eta irakasle bezala ez nuen lanik egin nahi. Beka bila hasi nintzen eta txokolatea egiten duen enpresa bat azaldu zen (Mars, amerikarra). Jendea behar zuten Ingalaterrako ikerketa eta desarrollo zentzurako", dio beasaindarrak. Han hasi zen lanean, Slough izeneko leku batean Windsor-etik gertu. Bigarren Mundu Gerra ondoren egindako langile herri bat zen, zulo batean, hindu eta etorkinez beteta. "Gogorra izan zen, normalean Ingalaterrako hegoaldean oso itxiak dira. Emigranteen artean egin nituen lagunak, poloniar komunitate guztiaren lagun egin nintzen". 92an Ingalaterran errezioa egon zen eta langileak botatzen hasi ziren, bera ere berehala bota zuten.

Beste lanik ez zuen aurkitzen eta Londresera joan zen. "Bertako bizitza tipikoa egin nuen, han eta hemen lan txikiak egin, mafia guztiarekin, dibertitua da. Momentu batean aspertzen hasi nintzen eta hona etorri nintzen".

"Hemen 6 hilabete egin nintuen. Intsumiso mugimentuan sartu eta bat eta beste oso gustora nengoen baina lanik ez nuen aurkitzen. Nestlekoek Ingalaterratik deitu zidaten bertara lanera joateko. Txokolate munduan nola lehen lan berdintsua eginda nengoen, han hasi nintzen, Yorken, Manchester inguruan. Ingalaterra iparraldean zoragarria da. Han bi urte egin ditut eta oso gustora. Jendea zoragarria da, Yorksaide, ezberdina da, oso ber-



takoak dira, hizkuntza ere ezberdina dute, nik Goierriarekin konparatzen dut. Esateko Patxarana egiten dute han (ginebrarekin egiten dute eta gogorrragoa da)", hori deskubritzean etxean bezala sentitu zen Estebe. Mendirako giro handia dago, asko eskalatzen da, koadrila polita egin zuen. Joandako leku guztietan gauza berdinak egiten bukatzen dela eta, lagunak eskalatzeraz eramaten zuten Estebe eta berak onddo bila, Yorken asko baitaude.

Ingalaterratik Europara

Lanarekin ere gustora zengoen, produktu berrien desarrolloan, 90 pertsonatatik 10eko talde batean. Han, eskeintza biologo bezala egin, baina gero ikasketak beraiek ematen dutenez, 6 hilabete egon zen Suitzan, txokolatea eskuz nola egiten duten ikasten. Urritik hasita hilabetero fabrikaz-fabrika dabil higieena, produkzioa, ingenieritza... ezagutzen. Ipar Irlanda, Alemania, Dinamarka etabarretan izan da. "Askotan oso nekea izan arren, interesgarria da, asko ikasten da", dio.

Urrian Brasilen (Sao Paulon) gailera fabrika batean lana eskeini zioten. "Tekniko gazteak behar dituzte, nik gailetagintzan idearik ere ez daukat baina ikasiko dut. Duda asko izan nituen, Yorken aspertzen hasitan nengoen. Euskal Herrira etortzeko gogoia nuen. Hego Amerikara joateko gogoia izan dut beti. Orain golpez, multinazional batek lana eskaintzen dit. Azkenean, Europatik dugun ikuspegia ahaztu eta han zer dagoen ikustea pentsatu dut. Apirila edo maiatza aldera joango naiz haruntza."

Ingalaterran euskaldun asko dagoela dio beasaindarrak, "Londresen eta Eskozian batez ere. Nik Londresen ez dut ingelesik egiten, euskaraz egiten dut, bizkaiera ere ikasten ari naiz. Gehien lagunen falta nabari dut, intsumiso bilerak etabar. Irlandan gehiago baina, Alemania eta leku hoietan horrelako istoriak oso marjinalak dira, jendea oso ezberdina da, ez dago hemen dagoen ez tentsio eta ez mugimendurik".

Janariarena aitzakia bat da berarentzat, "toki guztitan jaten da ondo eta toki guztietan dago jende jatorra. Yorken, bertako giroan sartzen hasita nengoen, baina beste lekuetan denbora gutxi pasatzean, turista bat izan naiz. Badaukat gogoia leku batean asentatzeko".

"Beti aritzen gara euskaldunak nortzuk garen esplikatzen eta jendeak galdera asko egiten ditu. Piskanaka lan hori egiten ari gara kanpoan gauden euskaldunok". Esan digu Estebek berak ezagutu dituen leku guzti horietako hainbat bitxikeriez gain.

 Mikel Albisu

OLAGI

sagardotegia

Sagardotegiko afariak
Enkarguz bazkariak
eta ospakizunak

☎ 88 77 26

ALTZAGA



LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

Inprimategia
EGUZKI

Nafarroa Etorbidea. 9
Tfnak: 88 94 82
20200 BEASAIN



Resti edari biltegian familiako ospakizuna

Beasaingo Resti edari biltegikoek utzi digute argazkia. 1951eko abuztuan, familiako ospakizun batean, Angelikaren bataioan hain zuzen ere, Resti edari biltegian ateratakoa da. Bertan bildutakoak hauexek:

Ezkerretik eskubira, zutik: Marzelino Olano eta Franzisko Garmendia.

Eserita: Restituto Urteaga, Andres Olano, Juan Kruz Olano eta Don Cesareo Ugarte.

Atzealdean eserita: Fermin Melguisa, Manuel Urteaga eta Julio Arratibel.

Erretratu zaharrik baduzu, bidali Ordiziako 124 posta kutxatilara. Hutsik egin gabe itzuliko dira.

KUKO

Jantetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.
Eguerdietan 2.000 pzt. + BEZa
Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.
On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

GENERALI

Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN

OSKARBI

OINETAKOAK

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

— — — — —

K. Nagusia, 25
88 19 44

ORDIZIA

 **KANPORA !**



esan lezaiezu Euskal Herriak independententzia izateko eskubidea duela

independentzia

gure Herriaren alde guztia eman dutenei maitasuna eta elkartasuna adierazi behar diegu

M^a JESUS AROSTEGI BERAZA
Joxi Lasaren ama
FELI ARTANO SAGASTUME
Joxean Zabalen ama
ARGIDER MUJICA ZUBIARRAIN
Euskal preso politikoa
J. MANUEL PAGOAGA "PEIXOTO"
Errefuxiatuen Komiteko bozeramalea
JOSEFA ARREGI AGIDAZU
Jesus Mari Zabarteren ama
MAITE GOLMAIO ESNAL
Xabi Kalparsoren ama
IGOR IGERATEGI GILISAGASTI
Intsumisoa, "Ijitu"ren anaia
PELLO JAUREGI SORONDO
Xabier Jauregi, "Xifi"ren aita
ARMANDO LEGAZ IRURETA
Euskal preso politikoa
KONTXI IGERATEGI SANTACRUZ
Gurutze lantziren ama
J. MANUEL ARISTI ETXAIDE
Euskal preso politikoa
ARANTXA BERGARA IZAGIRRE
Ramon Oñaederra, "Kattu"ren ama
ARANTZAZU BENITO JAUREGI
Eustakio Mendizabal, "Txikia"ren ama
XABIER IRAZUSTA OLEA
Rosa Zarraren senarra
MIREN PAGOLA ORMAZABAL
Iñaki Asteasuinzarra, "Beltza"ren ama

zer pentsatua emango dien boto bakarra : Euskal Herriak bere etorkizuna askatasunean erabakitzeke eskubidea du, inposaketarik gabe

bozkatu **HERRI BATASUNA**



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEA BAZKIDE BERRIEN KANPAINA



Goierritarra aldizkaria lagundu nahi baduzu, egin zaitez bazkide

Urteko kuota: 1.500 pezeta.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:.....Tfnoa:.....Adina:.....NAN:.....

Lanbidea:.....Banketxea:.....Bulegoa:.....

Kodea:.....Kontu zenb:.....